


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 2,7 igo dira 2025eko urtarrilean

Urte arteko datuei dagokienez (2025eko urtarriletik eta 2024ko urtarrilera), prezioak % 1,9 igo dira.

2025eko urtarrilean, Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 2,7 igo da, aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. 2024ko hil beraren aldean, kostuak % 1,9 igo dira.

Eraikingintzaren kostuak % 2,7 igo dira eta Ingeniaritza zibilarenak % 2,4. 2024ko urtarrilaren aldean, prezioak % 2,0 igo dira Eraikingintzan eta % 1,6 Ingeniaritza zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

2024ko abenduaren aldean, **lehengaien** kostuak % 3,5 igo dira eta **eskulanarenak** % 0,4. Urte arteko datuei dagokienez, lehengaien kostuak % 2,5 egin du gora eta lan-eskuarenak % 0,4.

Lehengaien kostuak % 3,6 igo dira hil artean Eraikingintzaren sektorean, eta % 3,1 Ingeniaritza zibilarenean. Urte arteko bilakaeran, Eraikingintzaren lehengaien kostuak % 2,6 igo dira eta Ingeniaritza zibilekoak % 2,0.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urtarrila 2025

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	120,4	2,7	1,9
Eraikinak	120,3	2,7	2,0
Ingeniaritza zibila	121,1	2,4	1,6
Lehengaiak	121,8	3,5	2,5
Eraikinak	121,6	3,6	2,6
Ingeniaritza zibila	122,6	3,1	2,0
Laneskua	116,9	0,4	0,4

Oinarria 2021=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Otsailaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitu diren lehengai nagusien prezioek 2025eko urtarrilean izan dituzte igoerarik handienak, 2024ko urtarrilaren aldean. Hona hemen azpisektore horiek: *Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa* (% 5,0) eta *Metalezko produktuen fabrikazioa* (% 4,6). Aldiz, *Kokeriak eta petrolioaren fintzeko* sektorean erabilitako lehengaien kostua % 2,8 jaitsi da eta *Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioarena* % 2,5.

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Urtarrila 2025

	m / m-12
Ateratze-industriak	4,2
Kokeak eta petrolioaren fintzen	-2,8
Metallikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa	-2,5
Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipaak salbu	4,6
Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa	5,0

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Otsailaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62